

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Enplegu publikoa egonkortzeko lehiaketa bidezko prozesuak. Bermeoko Udalean jasandako intrusio digitala dela eta, A2 azpitaldeko OLHUIko mekanikako eta soldagintzako irakasle plazetarako eskabideak aurkezteko epea berriro zabaltzea.

Iragarkia, Bermeoko Udalarena, 2022ko abenduaren 30ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. Xedapen gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren OLHUIko Mekanika eta Soldagintzako plazetan eskabideak aurkezteko epea berriro zabaltzea.

2023ko ekainaren 14an, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 141. zenbakian, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren, OLHUIko Mekanikako eta Soldagintzako irakasle plazen deialdia argitaratu zen.

2023ko uztailaren 6an Bermeoko Udalak bere hornitzaile baten segurtasun arazo bat dela eta intrusio digital bat jasan zuenaren berri izan zuen. Hori dela eta, 2023ko uztailaren 24ra arte, udaleko datu base guztiak erabiltezin egon dira, edozein motatako tramitazio modu etenda egon dira, datuetara sartzeko aukerarik gabe.

2023ko abuztuaren 2an, 2023 000003237 Alkatetza Dekretu bidez Bermeoko Udalak jasandako zibererasoaren adierazpena eta bere ondorioak onartu ziren.

2023ko abuztuaren 8ko 2023 000003289 Alkatetza Dekretuz Bermeoko Udalean izandako intrusio digitala dela eta, A2 azpitaldeko OLHUIko mekanikako eta soldagintzako irakasle plazetarako eskabideak aurkezteko epea berriro zabaltzen onartu da. Epe hori bost egun baliodunekoa izango da, legeak ezarritako 20 egun baliodunei egoitza elektronikoak normaltasun osoz funtzionatu duen 15 egunak kenduta.

Bermeon 2023ko abuztuaren 25ean. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly



SECCIÓN II
ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

Ayuntamiento de Bermeo

Se reabre el plazo de presentación de solicitudes para las plazas de profesor de mecánica y soldadura de la OLHUI subgrupo A2 por la intrusión digital padecida en el Ayuntamiento de Bermeo.

Anuncio del Ayuntamiento de Bermeo, publicado en el «Boletín Oficial de Bizkaia» de 30 de diciembre de 2022, número 6 y 8 de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre. Reapertura del plazo de presentación de solicitudes en las plazas de Mecánica y Soldadura de la OLHUI de la convocatoria del proceso especial de estabilización de empleo temporal derivado de las disposiciones adicionales.

El 14 de junio de 2023, en el «Boletín Oficial del Estado» número 141, se publicó la convocatoria del proceso especial de estabilización del empleo temporal derivado de las disposiciones adicionales 6.^a y 8.^a de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de plazas de profesores de Mecánica y Soldadura de la OLHUI.

El 6 de julio de 2023 el Ayuntamiento de Bermeo tuvo conocimiento de una intrusión digital por un problema de seguridad de uno de sus proveedores. Por ello, hasta el 24 de julio de 2023 todas las bases de datos municipales han estado inutilizadas, suspendidas de cualquier forma de tramitación, sin acceso a los datos.

Con fecha 2 de agosto de 2023 se aprueba mediante Decreto de Alcaldía 2023 000003237 la declaración y conclusiones del ciberataque sufrido por el Ayuntamiento de Bermeo.

En relación con la intrusión digital en el Ayuntamiento de Bermeo, por Decreto de Alcaldía 2023 0000003289 de 8 de agosto de 2023, se aprueba la reapertura del plazo de presentación de solicitudes para las plazas de profesor de mecánica y soldadura de la OLHUI, subgrupo A2. Este plazo será de cinco días hábiles, restando los 15 en los que la sede electrónica ha funcionado con total normalidad a los 20 días hábiles legalmente establecidos.

En Bermeo, a 25 de agosto de 2023.—La Alcaldesa, Nadia Nemeh Shomaly